



Berde berdea

Berde-berdea da natura, eta Euskal Herrian tonalitate guztiak ditu. Berdea maite dugu euskaldunok eta kolore horrek irudikatzen gaitu, nahiz eta kolore bera izendatzeko hitz latinoak erabili edo aranismoa den 'orlegi' berba. Berdea da gure garaiko ikur nagusia, nonahi. Eskuetan duzun *Aldiriren* zenbakian berde etiketaren erabileraren aniztasunaz eta azalkeiaz ohartarazi nahi dugu, bai eta haren alternatiba den beste kolore batzuen existentziaz ere.

Artikulu baina gehiago den STAREN manifestu errelatuak berdeari zor zaion miresmenaren ondorioen karikatura osatu du, naturarena ez ezik, jasangarritasunaren sinbolo merke gisa ere egiten den berdearen erabilera modu komikoan salatuz. Horregatik, naturak hainbat forma eta kolore badituela argudiatu da David Gissen-en liburuari egindako iruzkinean: naturaren kanpoan kokatzen ditugun azpinatura ez-berdeak, alegia, kea, usoak, lokatza eta putzuak, esaterako. Nolako harreman jasangarria sor dezakegu arkitektook hain berdea ez den askotariko natura horrekin? Hori lortzeko estrategia ezagunenetakoa den eraikinen eta landarediaren uztarketa aztertu dugu, tektonikotasuna eta elementu begetala erantsita duten ereduak bilduz. Zuhaitz begetalaren baliokide artifizial baten proiektua ere aipatu dugu, zuhaitzen funtzionaltasuna modu didaktikoan azaltzen duena.

Berdearen etiketa edozertarako da baleko, baita hirien ospea hauspotzeko balio duten estrategia eta sarien kasuan ere, Gasteizko "European Green Capital" izendapena kasu. Baita azpiegitura-garapen berriak eta inpaktu handikoak zurrizko ere. Sari eta makillaje horien kritikak aurkeztu ditugu zenbaki honetako bi artikulurekin. Hiri-ertzetan aurkitzen ditugun azpiegiturek topo egiten dute, eta zatitzen, tradizioz hiriaren antagonista izan den nekazaritza edo landa-eremua. Hartara, egungo hainbat praktika bateraezintasun hori errealitate uztartu batekin ordezkatzeko saiatzen dira, *neo-ruralismoaren* joeraren baitan koka daitezkeen nekazaritza urbanoa, hiri-ertzetako baratzak, edo nekazaritzako landareak kudeatzeko teknika tradizionalen inguruko hausnarketak, esaterako. Azken horren eredu esanguratsu baten —Bilboko Lorategien lehiaketan 2011n irabazle suertatu zen proiektua— nondik norakoak irakurgai dituzue. Maiz, ordea, berdezaletasun politikoarekin topo egiten dute gizarte-praktikek, eta berde ahalguztidunaren eta Jasangarri Deunaren izenean zapuztu egiten dituzte «goitik», Bilboko Hiri Baratzeen eta Iruñeko Arantza-diko meandroan sortu nahi duten baratze-parkearen kasuen inguruko artikuluetan azaldu den bezalaxe.

Eskala teorikoan, irtenbide gisa *Landscape Urbanism* izeneko joera azaldu dugu, azpiegituren, hiriaren eta ez-hiriaren arteko lotura orekatuaren bilaketa, eta, oinarrian paisaiaren integrazio-eta jarraitutasun-izaera darabiltzana, zaharkitua gelditu den hirigintza modernoaren alternatiba gisa. Salvador Rueda ekologoari eginiko elkarrizketan, hark hirietan aplikatzen dituen tesien oinarritzako kontzeptuez jardun dugu, eta jasangarritasunean kolore berde begetala baino harago joan gara hiri-ekosistemaren grisarekin.

Oinarrian, berdea denaren inguruko eztabaida medioetan azaltzen dena baino zabalagoa dela adierazi nahi genuke. Hau da, natura guztia ez dela berdea, ezta pristinoa ere, eta jasangarritasunaren edo ekologiararen inguruko hainbat praktika eta politika, oraindik orain, funtsean, berde-berde daudela.